

Informazioaren gizartea eta enpresak

Emitzen analisia

La sociedad de la información y las empresas

Análisis de resultados

Informazioaren Gizartea eta enpresak

La Sociedad de la Información y las empresas

ÍNDICE

	Pág/Or.
LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN Y LAS EMPRESAS	
1. Introducción	3
2. Equipamientos TIC en las empresas de la C.A. de Euskadi	3
3. Tipos de acceso a la red	10
4. Utilización de Internet	12
5. Presencia de las empresas en Internet	13
6. Seguridad informática	17
7. Comercio electrónico	19
8. Obstáculos al comercio electrónico	25
9. Comparación con otros países	26
10. Notas metodológicas.	30
10.1. Ficha metodológica	30
10.2. Conceptos y definiciones	34

AURKIBIDEA

INFORMAZIOAREN GIZARTEA ETA ENPRESAK

1. Sarrera
2. Informazio- eta komunikazio-hornikuntzak Euskal AE-ko enpresetan
3. Sarerako sarbide-motak
4. Interneten erabilera
5. Enpresek Interneten duten presentzia
6. Informatika-segurtasuna
7. Merkataritza elektronikoa
8. Merkataritza elektronikoaren oztopoak
9. Beste herrialde batzuekiko aldeak
10. Ohar metodologikoak.
10.1. Fitxa metodologikoak
10.2. Kontzeptuak eta definizioak

1. Introducción

La presente edición de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información en empresas, elaborada por Eustat, constata crecimientos positivos en el equipamiento de tecnologías de la información de las empresas de la C.A. de Euskadi al comienzo del año 2004 y una generalización de su uso entre los empleados, en particular, por lo que se refiere al acceso a Internet y a la disponibilidad de correo electrónico.

Respecto al año anterior, se moderan los incrementos obtenidos en los últimos años en equipamientos TIC - Tecnologías de la Información y de la Comunicación- por las empresas vascas.

Esta cuarta edición de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información (ESI empresas), realizada en el primer trimestre de 2004, va dirigida a empresas vascas de cualquier sector de actividad, salvo el primario, y se propone conocer de qué equipamientos disponen y qué utilización hacen estas empresas de las tecnologías de la información y de las comunicaciones (TIC), qué tipo de acceso y qué uso hacen de Internet y si tienen presencia en la red mediante página web. También, se analiza la importancia y la utilización que hacen del comercio electrónico, los obstáculos que encuentran para un mayor desarrollo del mismo y, por último, de qué medios disponen para su seguridad informática.

Los datos mostrados están basados en una respuesta de 7.500 establecimientos ubicados en la C.A de Euskadi.

2. Equipamientos TIC en las empresas de la C.A. de Euskadi

En este capítulo se analiza el grado de penetración de las tecnologías de la información y de las comunicaciones (TIC) en las empresas de la C. A. de Euskadi y, más concretamente, el grado de equipamiento alcanzado en esta materia.

Así, en el primer gráfico que aparece, se muestra el porcentaje de establecimientos que disponen de cada una de las diferentes tecnologías de la información y la comunicación. También, se puede apreciar como en estos establecimientos, según cuál sea su tamaño de empleo, hay grandes diferencias en los equipamientos que poseen ya que, salvo en teléfonos móviles, en el resto de equipamientos se da un porcentaje de implantación muy superior en los establecimientos de 10 ó más empleados de la Comunidad Autónoma de Euskadi que en los establecimientos más pequeños.

Los establecimientos de menor tamaño (hasta 2 empleados) continúan teniendo los niveles de equipamientos más bajos.

1. Sarrera

Informazioaren gizarteari buruz Eustatek enpresetan eginiko inkesta honetan, 2004 urtea hastean, Euskal AEko enpresek duten informazioaren teknologietako hornikuntzan hazkundera izan dela ageri da. Orokorlu egin da teknologia horren erabilera enpresa horietako langileen artean, bereziki Interneten sartzeari eta posta elektronikoa erabiltzeari dagokienez.

Aurreko urtearen aldean, informazioaren eta komunikazioaren teknologietako (IKT) hornikuntzetan, Euskal AEko enpresek gehikuntza moteldu dute. Izan ere, azken urteetan gehikuntza horiek handiagoak izan ziren.

Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI: enpresak) 2004ko lehen hiruhilekoan egin da, laugarren aldiz. Edozein sektoretako enpresak ditu aztergai, lehen sektorekoak izan ezik, eta haren helburua da jakitea -informazioaren eta komunikazioaren teknologiei (IKT) dagokienez- zer hornikuntza dituzten eta hornikuntza horiek nola erabiltzen dituzten, nolako sarbidea duten interneten eta nola erabiltzen duten, eta ea sarean dauden, webgune baten bidez. Halaber, aztertu da merkataritza elektronikoa zer garrantzia duen eta nola erabiltzen den, zer oztopo aurkitzen dituzten enpresek merkataritza hori garatzeko, eta, azkenik, zer baliabide dituzten segurtasun informatikorako.

Inkestak Euskal AEn dauden 7.500 establezimenduren erantzuna du oinarri.

2. Informazio- eta komunikazio-hornikuntzak Euskal AEko enpresetan

Atal honetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek Euskal AEn duten hedakuntza-maila aztertzen da, eta zehazkiago, alorrean lortutako hornikuntza-maila.

Lehen grafikoan ageri da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak dituzten establezimenduen ehunekoa, teknologia horiek sailkatuta. Halaber, ikus daiteke establezimendu horietan alde handiak daudela batetik bestera, enpleguaren araberako tamainari begiratuta. Hala, bada, sakelako telefonoei dagokienez izan ezik, gainerako hornikuntza-moten ezartze-maila askoz handiagoa da Euskal AEko 10 langileko edo gehiagoko establezimenduetan, establezimendu txikiagoetan baino.


Tamaina txikieneko establezimenduek (2 enplegatu bitarte) jarraitzen dute hornikuntza-maila txikiak izaten. Ehuneko

Estos porcentajes oscilan entre el 33,0% de los que disponen de correo electrónico y el 61,4% de los que tienen teléfono móvil, pasando por el 49,9% que poseen ordenadores y el 36,4% con acceso a Internet. En contraposición, los establecimientos mayores (100 ó más empleados) tienen una disponibilidad cercana al 100% en todos los equipamientos.

horiek aztertutik, ikusten da % 33,0ek baino ez dutela posta elektronikoa, baina, aldiz, % 61,4k sakelako telefonoa dutela. Tarteko ehunekoekin, % 49,9k ordenagailuak dituzte, eta % 36,4k Interneteko sarbidea dute. Horren aldean, establezimendu handienak (100 langile edo gehiago) ia % 100era iristen dira hornikuntza-mota guztietan.

Establecimientos por equipamientos TIC y estrato empleo en 2004. (%)

1. Establezimenduak, IKT hornikuntzen eta enplegu-geruzaren arabera, 2004. (%)



Observando una a una estas tecnologías, se ve que prácticamente la totalidad de los establecimientos (96,2%) de la C. A. de Euskadi con 10 ó más empleados, disponen de ordenador para el desarrollo de su actividad. Este alto porcentaje, sin embargo, desciende considerablemente, hasta el 59,9%, si se toma como referencia el conjunto de los establecimientos. Hay que tener en cuenta que, en este último caso, se incluyen las empresas cuya titularidad es la persona física o los denominados autónomos, donde, en general, la inversión destinada a este tipo de tecnologías es muy inferior.

En el caso del ordenador personal, si se comparan los resultados obtenidos este año con los datos del año anterior, no se aprecian diferencias significativas. Así, mientras los establecimientos con 10 ó más empleados parecen haber tocado techo en lo que respecta a su implantación, pues no hay diferencias (96,3% el año anterior por 96,2% éste), si se toman en cuenta todos los establecimientos, se produce un ligero aumento este año de 2 puntos porcentuales (del 57,9% al 59,9%), en el número de establecimientos que incorporan ordenadores a su equipamiento. Este dato denota una cierta tendencia al aumento de este nivel de informatización básica en los estratos más bajos de nivel de empleo en el País Vasco.

Teknologia horiek banan-banan aztertuz gero, ikusten da, Euskal AEn, 10 langileko edo gehiagoko establezimendu ia gehienek (% 96,2) ordenagailua dutela lanerako. Ehuneko altu hori, ordea, nabarmen apalagoa da (% 59,9) establezimendu guztiak oro har hartzen baditugu kontuan. Kontuan izan behar dugu azken kasu horretan persona fisikoaren edo autonomoen jabetzako enpresak ere barne hartzen direla, eta, horrelakotan, teknologia horietarako inbertsioa askoz txikiagoa izaten dela.

Ordenagailu pertsonalari dagokionez, aurtengo eta iazko datuak erkatzen baditugu, ez dago alde handirik. Hartara, badi-rudi 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduek tope egin dutela ordenagailu pertsonalak ezartzeari dagokionez, alderik ez baitago (% 96,3 iaz, eta % 96,2 aurtén). Establezimendu guztiak oro har kontuan izanik, aurtén 2 ehuneko-puntuako igoera txikia gertatu da (% 57,9tik % 59,9ra) hornikuntzetara ordenagailuak gehitu dituzten establezimenduetan. Datu horrek adierazten digunez, igoerarako joera dago oinarri-zko informatizatzeko-maila horretan Euskal Aeko enplegu-geruzarik apalenetan.

Por su parte, el teléfono móvil es otro de los elementos tecnológicos con índices de penetración más elevados en los establecimientos de la C.A. de Euskadi. En concreto, el 63,6% de los establecimientos utilizan el móvil u otros servicios de comunicación personal. Este porcentaje se eleva al 80,6% si se toman en cuenta únicamente los establecimientos de 10 ó más empleados.

En este equipamiento se aprecia un claro estancamiento en su evolución ya que, independientemente del tamaño de empleo, los porcentajes se mantienen constantes, variando alrededor de una décima porcentual al comparar los datos obtenidos este año con los del año anterior.

En un nivel superior se encuentran las tecnologías vinculadas a la red y que son, sin duda, las que se relacionan más directamente hoy en día con la denominada sociedad de la información: Internet y correo electrónico.


Bestalde, teknologia-elementuen artean, sakelako telefonoa ere oso sartua dago Euskal AEn establezimenduetan. Zehazki, establezimenduen % 63,6k sakelako telefonoa edota komunikazio pertsonaleko bestelako zerbitzu batzuk erabiltzen dituzte. Ehuneko hori % 80,6ra igotzen da 10 enplegatuko edo gehiagoko establezimenduak bakarrik kontuan hartuta.

Hornikuntza-mota horretan, enpleguaren araberako tamaina gorabehera, bilakaera gelditu egin dela ikusten da, ehunekoek beren horretan dirautelako. Izan ere, aurtengo datuak iazkoekin konparaturik, ehuneko-hamarren bateko aldea dago.

Goragoko mailan, sareari lotutako teknologiak ditugu. Zalantzarik gabe, gaur egun, horiek dira informazioaren gizarteari estuen lotuta sumatu ohi ditugunak: Internet eta posta elektronikoa.

Personal con acceso a los equipamientos TIC por estrato de empleo en 2004. (%)

2. IKT hornikuntzak erabiltzen dituzten langileak, enplegu-geruzaren arabera, 2004. (%)



En la C.A. de Euskadi, el 42,7% de los establecimientos usan el correo electrónico y el 45,9% están conectados a Internet. Estableciendo de nuevo la divisoria en los establecimientos de 10 ó más trabajadores, resulta que, en estos últimos, el 87,9% utilizan el correo electrónico y el 88,1% disponen de Internet, siguiendo una incorporación similar en ambos.

Con 20 ó más empleados, más del 90% de los establecimientos disponen de Internet y correo electrónico, frente a poco más del 30% en los establecimientos de hasta 2 empleados. Así, aunque en los establecimientos pequeños se va notando su progresiva incorporación a la red, aún están lejos de alcanzar las cifras obtenidas en los de mayor empleo, lo que refleja que estos equipamientos están aún en una fase de implantación incipiente en los establecimientos pequeños que, por otra parte, son los más numerosos.

Euskal AEn, establezimenduen % 42,7k posta elektronikoa erabiltzen dute, eta % 45,9k Interneteko konexioa dute. Berriz ere 10 enplegatuko edo gehiagoko enpresak gainerakoetatik berezita, halakoan artean, % 87,9k posta elektronikoa erabiltzen dute, eta % 88,1k interneteko konexioa dute. Hedakuntza antzekoa izan da kasu bietan.

Horrez gain, 20 langileko edo gehiagoko establezimenduetan, % 90ek Interneteko konexioa eta posta elektronikoa dituzte; 2 enplegatu bitarteko establezimenduetan, oster, % 30ek baino ez dituzte. Hala, bada, nahiz eta establezimendu txikiak sarean arian-arian sartzen diren, enplegatu gehiago duten establezimenduetako mailletara iristeko asko falta zaie oraindik ere. Hortik ondorioztatzen da establezimendu txiki horietan halako hornikuntzen ezarpena hasi baino ez dela egin; gainera, halako establezimenduak ugarietak dira.

Desde el punto de vista del personal empleado, si se observa la utilización que hacen de estas tecnologías, se puede apreciar cómo, en este caso, el tamaño del establecimiento no influye tanto en los porcentajes de uso que se obtienen, esto es, las diferencias por tamaños no son tan acusadas. Así, mientras en los establecimientos de menos de tres personas el 45,8% de los empleados utilizan el ordenador personal, en los establecimientos de cien o más empleados este porcentaje supone el 55,6%. En el caso del correo electrónico, el personal que lo utiliza supone el 28,9% en los establecimientos más pequeños y el 43,8% en los establecimientos de cien o más empleados. Por último, en el uso de Internet, las diferencias tampoco son muy llamativas, pues si en los establecimientos de 0 a 2 empleados el porcentaje es del 32,5%, en los establecimientos más grandes se llega escasamente al 37,4%.

Esto puede ocurrir porque, mientras en los grandes establecimientos sólo una parte de los empleados, normalmente los de oficina, tienen acceso a estos equipamientos, en los establecimientos pequeños el trabajo no está tan diferenciado, teniendo que hacer cada persona un poco de todo.

Por tanto, aunque los establecimientos grandes tienen claramente un mayor equipamiento, el porcentaje de personal que hace uso de estas tecnologías es bastante similar y no depende tanto del tamaño de la empresa.

Por otra parte, si se analizan los datos obtenidos teniendo en cuenta las diferentes actividades que desarrollan las empresas, se pueden ver cuáles son los sectores más dinámicos en la incorporación de las TIC.

Bestalde, enplegatuek bi teknologia horiek nola erabiltzen dituzten aztertuz gero, ondorioztatzen dugu establezimenduaren tamainak ez duela hainbesteko eraginik erabilera-ehunekoetan, hau da, tamainaren arabera ez direla hain nabarmenak. Hartara, hiru langile baino gutxiagoko establezimenduetan, enplegatuen % 45,8k ordenagailu pertsonala erabiltzen dute, eta ehun enplegatu edo gehiagokoetan, % 55,6k. Posta elektronikoz ari garela, establezimendu txikienetan langileen % 28,9k erabiltzen dute, eta ehun enplegatuko edo gehiagokoetan, % 43,8k. Azkenik, Interneten erabileran ere ez dago alde handirik: 0 eta 2 enplegatu bitarteko establezimenduetan enplegatuen % 32,5ek erabiltzen dute, eta establezimendu handienetan, % 37,4k.

Honako hau izan daiteke horren arrazoa: establezimendu handietan, enplegatuetako batzuek baino ez dituzte erabiltzen hornikuntza horiek; txikietan, aldiz, lana ez dago hain bereizita, eta langile bakoitzak denetik egin behar du.


Hortaz, nahiz eta establezimendu handiek hornikuntza gehiago duten, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen ehunekoa nahiko antzekoa da establezimendu guztietan, eta ez da enpresaren tamainaren arabera.

Bestalde, enpresek garatutako jarduerak kontuan izanda aztertzen baditugu datuak, ikus daiteke zein sektore diren aktiboena informazioaren eta komunikazioen teknologiak ezartzen.

Establecimientos por equipamientos TIC y sectores en 2004. (%)

3.

Establezimenduak, IKT hornikuntzen eta sektoreen arabera, 2004. (%)



Así, se observa cómo en la C.A. de Euskadi se da un mayor dinamismo en la industria, en la incorporación a los establecimientos de estas tecnologías, que en los sectores de construcción y de servicios.

Son las propias características de cada actividad las que hacen que sectores como construcción o, dentro de servicios, las actividades de hostelería, transporte y servicios personales, e incluso en industria textil y confección, tengan la mayoría de sus establecimientos de pequeño tamaño, característica que, hoy por hoy, parece que no ayuda a la incorporación de tecnologías como Internet o incluso de ordenadores personales a su actividad.

Sin embargo, y de forma excepcional, también hay ciertas actividades que, aún formando parte del sector servicios, presentan unos niveles de equipamiento muy altos, por encima incluso de los sectores industriales. Son actividades muy vinculadas a las nuevas tecnologías, como banca y seguros y servicios a empresas.


Hala, bada, ikusten da, Euskal AEn, industrian dinamismo handiago dagoela eraikuntzako eta zerbitzuetako sektoreetan baino, establezimenduetan teknologia horiek ezartzean.

Jardueren ezaugarriak berak direla kausa, establezimenduak, oro har, txikiak izaten dira eraikuntzako sektorean edo, zerbitzuetako sektorearen barruan, ostalaritzako, garraioko eta zerbitzu pertsonaleko jardueretan, bai eta ehungintza eta jantzigintzako industrian ere. Gaur egun, horrek ez du laguntzen teknologiak, hala nola Internet edo ordenagailuak, jarduera horietan sartzen.

Dena dela, eta salbuespen gisa, zerbitzuetako sektoreko beste jarduera batzuetan oso hornikuntza-maila altua dute, industria-sektoreetan baino altuagoa, zenbaitetan. Teknologia berriei oso lotuta dauden jarduerak dira, hala nola banca eta aseguruak, eta enpresentzako zenbait zerbitzu.

Personal con acceso a los equipamientos TIC por sectores en 2004. (%)

4. IKT hornikuntzak erabiltzen dituzten langileak, sektoreen arabera, 2004. (%)



Si el análisis se hace desde el punto de vista del personal ocupado, y también por sectores de actividad, se observa que, en este caso, son los trabajadores del sector servicios los que claramente tienen un mayor acceso a las tecnologías de la información y comunicación. Así, en el uso del ordenador personal estos trabajadores lo emplean en un 61,3%, mientras que en el caso de la industria o de la construcción suponen el 40,9% y el 34,9% respectivamente. El correo electrónico lo emplea el 45,0% del personal de servicios y en industria o construcción lo emplea el 29,6% y el 22,7% respectivamente. Por último, también en el uso de Internet hay una fuerte desproporción entre el 46,1% del personal que lo utiliza en servicios y el 26,8% ó el 23,9% que lo utilizan en industria o construcción.

Enplegatu-kopurua zein jarduera-sektorea kontuan izanik, atzematen da zerbitzuetako sektoreko langileek erabiltzen dituztela gehien informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Horrenbestez, langile horietako % 61,3k erabiltzen dute ordenagailu pertsonala, eta industrian edo eraikuntzan, langileen % 40,9k eta % 34,9k, hurrenez hurren. Zerbitzuen sektorean, langileen % 45,0ek erabiltzen dute posta elektronikoa, eta industrian eta eraikuntzan, % 29,6k eta % 22,7k, hurrenez hurren. Azkenik, Interneten erabileran ere alde handia dago zerbitzuetako langileen (% 46,1) eta industriako langileen (% 26,8) artean, edo lehenen eta eraikuntzako langileen (% 23,9) artean.

Por tanto, se observa que el sector más dinámico de la economía, a la hora de disponer de estos equipamientos TIC, variará según la forma en que se analicen los datos obtenidos. Según la proporción de establecimientos que disponen de estas tecnologías, destaca claramente el sector de la industria sobre los demás sectores, pero si lo que se tiene en cuenta es el porcentaje de empleados que tienen acceso a estos equipamientos, el que sobresale es el sector servicios.

Esta diferenciación entre sectores se puede deber a que, si bien en la industria los establecimientos al ser de mayor tamaño están mejor equipados, sin embargo una parte importante de su personal se dedica a tareas de producción, no teniendo acceso a estas tecnologías. Por el contrario, en el sector servicios, aunque los establecimientos en general son de menor tamaño, la mayoría del personal está en oficina, que es donde mayor uso se hace de estos equipamientos.


Asimismo, hay que señalar el papel que tiene la Administración Pública en el desarrollo de la Sociedad de la Información. Desde la Administración Pública se ha apostado fuertemente en favor de las nuevas tecnologías, incorporándolas masivamente a sus centros de trabajo. Así, el uso de ordenadores personales en la Administración Pública llega prácticamente al 100% de los organismos públicos y la utilización del correo electrónico y de la red se da en un 90% de los centros de la Administración Pública vasca.

Si el análisis se hace por Territorio Histórico, se observa cómo el grado de equipamiento de las diferentes tecnologías de la información y la comunicación en las empresas es algo superior en Alava respecto a los territorios de Bizkaia y Gipuzkoa, obteniendo estos dos últimos territorios unos resultados muy similares entre sí.

Establecimientos por equipamientos TIC y Territorio Histórico en 2004. (%)

5.

Establecimientos, IKT hornikuntzen arabera, lurraldeka, 2004. (%)



Beraz, informazioaren eta komunikazioaren teknologia bereganatzen dinamikoa den sektorea aldatu egingo da azterketaren ikuspegiaren arabera. Teknologia horiek dituzten establezimenduen proportzioa aztertuz gero, argi eta garbi nabarmentzen da industria-sektorea gainerako sektoreen gainetik. Aldiz, hornikuntza horiek erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoa hartzen badugu kontuan, zerbitzu-sektorea nabarmentzen da.

Hori azaltzeko, kontuan izan behar dugu industriako establezimenduek, handiagoak direnez, hornikuntza gehiago dutela, baina langile asko ekoizpen-lanetan aritzen denez, halako langileek ez dituztela teknologia horiek erabiltzen. Zerbitzu-sektorean, aldiz, establezimenduak txikiagoak izan ohi diren arren, langile gehienak bulegoetan aritzen dira, eta hor erabiltzen dira gehien hornikuntza horiek.

Nabarmentzekoa da, bestalde, Administrazio Publikoak informazioaren gizartearen garapenean duen papera. Administrazio Publikoak teknologia berriak sustatzeko ahalegin irmoa egin du, eta bere lantokietan hornikuntza ugari ezarri du. Hala bada, Administrazio Publikoan, ordenagailuak erakunde publikoetako ia % 100etan erabiltzen dira. Posta elektronikoa eta sarea eskual Administrazio Publikoko zentroetako % 90ean erabiltzen dira.

Lurraldeka, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan enpresek duten hornikuntza aztertuta, ikusten da Arabak hornikuntza-maila altuxeagoa duela, Bizkaia eta Gipuzkoa baino. Azken bi lurralde horiek oso antzeko emaitzak dituzte.

Respecto a los datos que se obtuvieron el año anterior, cabe indicar que, este año, los mayores incrementos en los equipamientos observados varían según el territorio. Así, en puntos porcentuales, Alava logra el mayor incremento en ordenadores (+3,3), Bizkaia, por su parte, obtiene un significativo crecimiento este año en correo electrónico (+3,7), mientras que Gipuzkoa es el territorio que alcanza unas tasas de crecimiento más altas en Internet (+3,6).


Hay otras tecnologías más especializadas, como redes locales, intranet, extranet, etc, con unos niveles de incorporación a los establecimientos más reducidos. De red local o extendida disponen el 24,8% de los establecimientos, mientras que la utilización de otras redes basadas en el protocolo de Internet, como intranet o extranet, alcanzan respectivamente el 11,9% y el 4,4% de los establecimientos. En cuanto a otros usos de las tecnologías de la información, como pueden ser la transferencia electrónica de fondos o el intercambio de datos informatizados (EDI), su utilización, por parte de los establecimientos, es del 27,4% y del 6,5% respectivamente.

Aurreko urtean lortu ziren emaitzekin alderatuta, aurten gehien gehitu diren hornikuntzak ezberdinak dira, lurraldearen arabera. Hartara, ehuneko-puntutan, Arabak lortu du hazkunderik handiena ordenagailuetan (+3,3); Bizkaiak, bestalde, hazkunde handia izan du posta elektronikoa (+3,7); eta, azkenik, Gipuzkoan izan da Interneten hazkunde tasarik handiena (+3,6).

Teknologia espezializatuagoi (sare lokalak, intranet, estranet...) gagozkiela, gutxiago ezarri dituzte establezimenduetan. Hala, establezimenduen % 24,8k sare lokala edo hedatua dute; aldiz, Interneteko protokoloan oinarritutako beste sare batzuen (intranet eta estranet) erabilera establezimenduen % 11,9ra eta % 4,4ra iristen da, hurrenez hurren. Informazioaren teknologien beste erabilera batzuk aztertuta, hala nola funtsen transferentzia elektronikoa edo datu informatizatuen elkartrukea (EDI), establezimenduen % 27,4an eta % 6,5ean erabiltzen dira, hurrenez hurren.

Evolución en los establecimientos vascos de los equipamientos TIC 2001-2004. (%)

6. IKT hornikuntzen bilakaera Euskal Aeko establezimenduetan, 2001-2004. (%)



Estas tecnologías, por sus propias características, van unidas a organizaciones de un cierto tamaño, lo que se comprueba al observar cómo escasamente el 5,7% y el 2,1% de los establecimientos de 0 a 2 empleados tienen intranet o extranet respectivamente. Sin embargo, en los establecimientos de más de 100 empleados, estas mismas tecnologías alcanzan unos porcentajes que se elevan hasta el 81,3% y el 40,4% respectivamente, lo que confirma la fuerte correlación existente entre el tamaño del establecimiento y la presencia o no de estas redes o protocolos.


Teknologia horiek, haien ezaugarriak direla medio, erakunde handi samarretan erabili ohi dira. Argi nabari da hori ohartzen bagara 0 eta 2 enplegatu bitarteko establezimenduetan % 5,7k eta % 2,1ek baino ez dutela intranet edo estranet, hurrenez hurren. Aitzitik, 100 langile baino gehiago dituzten establezimenduetan, % 81,3ek eta % 40,4k, hurrenez hurren, erabiltzen dituzte teknologia horiek. Horrek egiaztatzen du lotura handia dagoela establezimenduaren eta sare edo protokolo horiek erabiltzearen artean.

Por último, si se observa la evolución que han tenido estas tecnologías en las empresas vascas durante los últimos años, se puede apreciar un continuo aumento en su implantación, aunque, de forma gradual, también se aprecia una cierta desaceleración según se van logrando unos porcentajes de uso más importantes.

3. Tipos de acceso a la red

En la C.A. de Euskadi, prácticamente la mitad de los establecimientos tienen acceso a Internet. Así, el número de establecimientos con conexión a Internet en este último año asciende al 45,9% del total, tras haber experimentado un crecimiento de algo más de 3 puntos porcentuales desde el 42,7% conseguido el año anterior. Si sólo se consideran los establecimientos de diez o más empleados, este porcentaje alcanza una cifra del 88,1%, tras haber conseguido, asimismo, un incremento de 1,4 puntos porcentuales respecto al año anterior.

Establecimientos con acceso a Internet por estrato de empleo y año. (%)



Además de tener acceso a Internet, en el grado de implantación de las tecnologías de la sociedad de la información, también tiene una gran importancia el sistema que se emplee para incorporarse a la red. Esto es debido a que, para acceder a la información disponible en Internet, es fundamental el grado de desarrollo de las redes de acceso y el tipo de conexión que se utilice.

Entre las empresas que tienen acceso a Internet, algo más de la mitad, concretamente el 53,3%, acceden a través de las líneas ADSL, haciendo que ésta sea, por primera vez, la principal forma de acceso a Internet para las empresas. Respecto al año

Azkenik, Euskal Aeko enpresetan teknologia horiek izan duten bilakaerari begiratuta, ikus daiteke azken urteetan gero eta gehiago ezarri direla, eta etengabe, arian-arian ezarri badira ere. Halaber, nolabaiteko moteltzea atzematen da, erabilerak ehuneko handiagoak lortu ahala.

3. Sarerako sarbide-motak

Euskal Aeko establezimenduen ia erdian Interneterako sarbidea dute. Hartara, azken urtean Interneteko konexioa zuten establezimenduak % 45,9 ziren. Aurreko urtean izandako ehunekoarekin erkatuta (% 42,7), 3 ehuneko-puntu igo da. Hamar langileko edo gehiagoko establezimenduak baino ez baditugu kontuan hartzen, % 88,1era iristen da, eta, aurreko urtearen aldean, igoera 1,4 ehuneko-puntu izan da.

7. Interneteko sarbidea duten establezimenduak, enplegu-geruzaren eta urtearen arabera. (%)

Interneteko sarbidea izateaz gain, informazioaren gizarteko teknologien ezartze-mailan garrantzi handia du sarean sartzeko erabiltzen den sistemak. Izan ere, Interneten eskuragarri dagoen informaziora iristeko, oinarritzkoa dira sarbide-sareen garen-maila eta erabiltzen den konexio-mota.

Interneterako sarbidea duten enpresen artean, erdiak baino apur bat gehiagok -% 53,3k, zehazki- ADSL lineen bidez sartzeko dira Interneten. Hala, bada, lehenbizikoz, hori da enpresek Interneten sartzeko erabiltzen duten era nagusia. Aurreko urte-


anterior, su utilización aumenta en 13 puntos porcentuales, desde el 40,3% que representaba. En sentido contrario, la utilización de las líneas telefónicas ordinarias con módem, que hasta ahora eran las más utilizadas, continúa descendiendo y, este año en concreto, tras perder 7,2 puntos porcentuales, el total de establecimientos con acceso a Internet mediante este sistema, representa el 42,0%. Las líneas RDSI, por su parte, también sufren un retroceso de 3,7 puntos porcentuales, representando actualmente al 11,6% del total de establecimientos conectados.

aren aldean, linea horien erabilera 13 ehuneko-puntu hazi zen, urte horretan enpresa erabiltzaileak % 40,3 ziren eta. Aitzitik, modemarekiko telefono-linea arrunten erabilerak (orain arte erabilienak izan dira horiek) behera egiten jarraitzen du. Aurten, 7,2 ehuneko-puntu galdu du, eta Interneten sartzeko sistema hori erabiltzen duten establezimenduak % 42,0 dira. Bestalde, RDSI lineek ere 3,7 ehuneko-puntuko atzerakada izan dute, eta gaur egun konektatuta dauden establezimendu guztien % 11,6 dira.

Establecimientos con acceso a Internet por tipo de conexión, estrato de empleo y año. (%)

Interneteko sarbidea duten establezimenduak, konexio-motaren, enplegu-geruzaren eta urtearen arabera. (%)

8.



Además, hay otro tipo de conexiones, normalmente de banda ancha y limitadas a las empresas más grandes, que suponen el 5,4% del total de establecimientos.

Gainera, bestelako konexioak (oro har, banda zabalekoak dira, eta enpresa handienetan baino ez daude) ditugu, eta establezimendu guztien % 5,4an daude.

Finalmente, si se observa el tamaño del establecimiento, se aprecia cómo el sistema de acceso a la red, a partir de 10 ó más empleados, es claramente mayoritario a través de las líneas ADSL, representando el 70,2% de los establecimientos de este tamaño y habiendo ganado su utilización entre las empresas 11,8 puntos porcentuales respecto al año anterior.

Azkenik, establezimenduaren tamainari begiratuta, atzeman daiteke sarerako sarbide-sistema gehien-gehienetan ADSL lineena dela 10 langileko edo gehiagoko establezimenduetan, % 70,2an, hain zuzen. Hortaz, enpresetan haren erabilera 11,8 ehuneko-puntu igo da, aurreko urtearen aldean.

Este fuerte incremento en una de las modalidades de acceso a Internet, lógicamente, ha repercutido de forma negativa en las demás formas de acceso. Así, tanto la utilización del módem, que ahora representa el 24,4%, como de las líneas RDSI, que ahora suponen el 16,8%, han descendido, respectivamente, 1,1 y 7,6 puntos porcentuales. El empleo de otro tipo de conexiones se mantiene en un 11,2%.

Interneteko sarbide-modalitate batean izandako hazkunde handi horrek, jakina, eragin negatiboa izan du gainerako sarbide-motetan. Modemek (% 24,4) eta RDSI lineek (% 16,8) 1,1 eta 7,6 ehuneko-puntu galdu dituzte, hurrenez hurren. Bestelako konexioen erabilera % 11,2koa da oraingo datuetan ere.

4. Utilización de Internet

Por los datos recogidos en la encuesta, se puede conocer qué uso se hace y qué es lo que más interesa de la red a los establecimientos con acceso. Este interés puede ser muy diferente dependiendo de la perspectiva empresarial o comercial que se le quiera dar.

Así, entre los principales usos que hacen las empresas de sus equipos de Internet, se puede destacar tanto la utilización del correo electrónico como la búsqueda documental. Estas son las dos actividades principales, realizándolas más del 90% de los establecimientos con conexión de la C.A. de Euskadi, independientemente del sector de actividad o del estrato de empleo en el que estén ubicados.

Establecimientos por tipo de utilización de la red. en 2004. (%)


4. Interneten erabilera

Inkestan jasotako datuei esker, jakin dezakegu nola erabiltzen den, eta sarbidea duten establezimenduei zer den saretik gehien interesatzen zaiena. Interes hori asko alda daiteke, ematen zaion enpresa- edo merkataritza-ikuspegiaren arabera.

Hala, enpresek beren Internet-ekipoei ematen dizkieten erabilera nagusien artean, posta elektronikoa eta dokumentuen bilaketa nabarmentzen dira. Horiek dira bi jarduera nagusiak, eta Euskal AEn konexioa duten establezimenduen % 90ean baino gehiagotan egiten dituzte, jarduera-sektorea nahiz enplegu-geruza gorabehera.

Establezimenduak, sarearen erabilera-motaren arabera, 2004. (%)

9.



A continuación figura la obtención de información bancaria o financiera y la realización de transacciones con entidades financieras, con un 59,7% y un 48,4% respectivamente del total de establecimientos con acceso a la red.

También, se puede destacar, con un 35,0% del total de empresas, la importancia que éstas dan al uso de Internet para su comunicación con las Administraciones Públicas y, así, poder realizar, mediante esta vía, algunos trámites administrativos.

Como otros usos importantes, hay que señalar que el 27,5% de los establecimientos utilizan Internet para acceder a las bases de datos de proveedores-clientes y el 25,6% lo emplean para recibir o bajarse de la red productos digitales como software, etc.

Jarraian ditugu banka- nahiz finantza-informazioa lortzea eta finantza-erakundeekiko transakzioak; hurrenez hurren, sarera konektaturiko establezimendu guztien % 59,7k eta % 48,4k erabiltzen dute sarea horietarako.

Halaber, nabarmendu behar da enpresek gero eta gehiago erabiltzen dutela Internet -enpresen % 35,0ek- Administrazio Publikoekin komunikatzeko, eta, horrela, administrazio izapide zenbait modu horretan egiteko.

Beste erabilera garrantzitsu batzuen artean, esan behar da establezimenduen % 27,5ek Internet erabiltzen dutela hornitzaile eta bezeroen datu-baseetan sartzeko; bestalde, % 25,6k saretik produktu digitalak (softwarea,) jasotzeko edo deskargatzeko erabiltzen dute.

Además de estos usos, que son los que mayor utilización tienen, también hay que hacer referencia a otras actividades que, aunque se emplean de forma menos habitual, también las realizan las empresas con conexión a Internet. Estas otras actividades serían: análisis de competidores (14,9%), acceso a cursos o formación del personal (11,8%), compras de bienes y servicios (9,4%), obtención de servicios post-venta (6,8%), reclutamiento de personal (4,7%) y ventas de bienes y servicios (3,1%).

5. Presencia de las empresas en Internet

A la hora de analizar la posición que ocupan las empresas en el uso de las nuevas tecnologías, otro indicador importante es la presencia que tienen en Internet a través de una página web, ya sea mediante un servidor propio o alojada en un servidor ajeno.

A comienzos de 2004, el 16,4% del total de establecimientos disponía de página web, ya fuera propia (10,9%) o alojada en otro servidor (5,5%). Esto supone un aumento de 1,9 puntos porcentuales respecto a la misma fecha del año anterior.

Establecimientos con presencia en Internet por rama de actividad y estrato de empleo y año. (%) **10.**


Erabilera horiez gain (zabalduenak), Internetera konektaturiko enpresek egiten dituzten beste jarduera batzuk ere aipatu behar dira, nahiz eta ez diren hain ohikoak. Hona hemen beste jarduera horiek: lehiakideen analisia (% 14,9), ikastaroak edo langileen prestakuntza (% 11,8), ondasunak eta zerbitzuak erostea (% 9,4), salmenta ondoko zerbitzuak jasotzea (% 6,8), langileak kontratatzea (% 4,7), eta ondasunak eta zerbitzuak saltzea (% 3,1).

5. Enpresek Interneten duten presentzia

Enpresek teknologia berriak zenbateraino erabiltzen dituzten jakinarazten digun beste adierazle garrantzitsu bat dugu enpresek Interneten duten presentzia, bai zerbitzari propio bateko webgunearen bidez bai beste zerbitzari batean sartutako webgune batekin.

2004aren hasieran, guztizko establezimenduen % 16,4ek webgunea zuten, bai propioa (% 10,9) bai beste zerbitzari batean (% 5,5). Horren arabera, 1,9 ehuneko-puntuko igoera izan da, aurreko urteko data beraren aldean.

Interneten dauden establezimenduak, jardueradarraren eta enplegu-geruzaren arabera, urteka. (%)



Como se aprecia en el gráfico, de nuevo los porcentajes que se obtienen son muy diferentes según el tamaño que tenga el establecimiento. Así, la presencia en la red se incrementa, desde el citado 16,4% para el total de los establecimientos, hasta alcanzar al 55,8% de los establecimientos de 10 ó más empleados, tras aumentar 4,1 puntos porcentuales el porcentaje obtenido el año anterior. En este tamaño de empleo, la distribución de las páginas web entre propia o alojada en otro servidor sería de un 36,7% y un 19,1% respectivamente. También a destacarse, que en los establecimientos de más empleo, 100 ó más empleados, el porcentaje de los que tienen página web supone ya el 84,5%.

Por sectores, es industria el que mayor porcentaje alcanza (21,6%) en el total de establecimientos con página web. Muy cerca se sitúa el sector servicios (17,4%) y en tercer lugar, aunque algo alejado, está el sector construcción (7,2%). Si también se tiene en cuenta el tamaño del establecimiento y se observan exclusivamente los de 10 ó más empleados, este orden varía, siendo ahora servicios con un 62,9% el sector que ocupa el primer lugar, seguido por industria con un 51,6% y en tercer y último lugar el sector construcción con un 30,4%.

También, se puede observar en el gráfico adjunto cómo, en los últimos años, la creación de páginas web tiene unos crecimientos sostenidos, ligeramente por encima del 10% anual, tanto para el total de empresas como para los establecimientos de 10 ó más empleados. Actualmente, más de la mitad de las páginas web están creadas en el año 2000 o anteriormente.

Establecimientos con presencia en Internet por año de creación de las páginas web y estrato de empleo. (%)


Grafikoa ageri den bezala, oraingoa ere emaitzak oso ezberdinak dira establezimenduaren tamaina kontuan izanda. Horrenbestez, establezimendu guztiak hartuta, % 16,4 daude sarean; 10 langileko edo gehiagoko establezimenduak soilik hartuta, baina, % 55,8ra igotzen da ehunekoa. Gainera, aurreko urtearen aldean, azken datu hori 4,1 ehuneko-puntu igo da. Enplegu-maila hori duten establezimenduetan, webgune propioak eta beste zerbitzari batea sartutakoak honela banatuta daude: hurrenez hurren, % 36,7 eta % 19,1. Esan beharrekoa da, era berean, enplegu gehieneko establezimenduetan, hots, 100 enplegatuko edo gehiagokoetan, webgunea dutenak % 84,5 direla.

Sektoreka, webgunea duten establezimendu guztien artean, industriak du ehunekorik handiena (% 21,6). Ondoren, zerbitzu-sektorea dugu (% 17,4), eta hirugarren, urrutixeago egon arren, eraikuntza-sektorea (% 7,2). Gainera, establezimenduaren tamaina aintzat hartzen bada, eta 10 enplegatuko edo gehiagokoei baino ez badiegu behatzen, hurrenkera hori aldatu egiten da, eta zerbitzu-sektorea (% 62,9) da lehenengoa; bigarrena, industria (% 51,6); eta hirugarrena, eraikuntza (% 30,4).

Grafikoa ikus daiteke, halaber, azken urteetan gero eta webgune gehiago sortu direla, eta ehuneko berdintsuetan (% 10eko baino apur bat gehiagoko hazkundea urtean). Hori gertatu da bai enpresa guztiak oro har hartuta, bai 10 langileko edo gehiagoko enpresak soilik kontuan izanda. Egun, webguneen erdia baino gehiago 2000. urtean edo lehenago sortutakoak dira.

11.

Interneten dauden establezimenduak, webguneak sortu dituzten urtearen eta enplegu-geruzaren arabera. (%)



El idioma empleado por las empresas en sus páginas web también es un dato importante, ya que permite observar a qué grupo de usuarios van dirigidos sus mensajes según cuál sea el idioma que utilicen. Así, prácticamente la totalidad de las páginas web de los establecimientos de la C.A. de Euskadi, el 98,1%, se pueden leer en castellano. El euskera, por su parte, es posible encontrarlo en un tercio, concretamente en el 32,4% de los casos. Este último porcentaje es ligeramente superior al que alcanzan las páginas a las que se puede acceder en inglés que suponen el 30,6%. Por último, en el 13,8% de las páginas web de las empresas se pueden encontrar otros idiomas.

Tanto a nivel territorial como a nivel sectorial o de estrato de empleo, estos porcentajes varían. Así, a nivel de Territorio Histórico, el mayor porcentaje de páginas web en euskera se encuentra claramente en Gipuzkoa con un 39,9%, frente al 29,8% y al 27,6% de Alava y Bizkaia respectivamente.

Enpresek beren webguneetan erabiltzen duten hizkuntza garrantziko datua da; izan ere, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeak adierazten digu zein erabiltzaile-talderentzat diren webguneetako mezuak. Euskal AEko establezimenduen ia webgune guztiak (% 98,1) gaztelaniaz irakur daitezke. Bestalde, euskara heren batean dugu, hain zuzen, webguneen % 32,4an. Azken ehuneko hori ingelesez irakur daitezkeen webguneen ehunekoa (% 30,6) baino apur bat handiagoa da, besterik ez. Azkenik, enpresen webguneen % 13,8an beste hizkuntza batzuk dituzte.

Ehunekoak aldatu egiten dira lurraldearen, sektorearen nahiz enplegu-geruzaren arabera. Hala, lurraldeei dagokienez, Gipuzkoan sortu da, argiro, euskarazko webguneen ehuneko handiena, hain zuzen, % 39,9; Araban eta Bizkaian, berriz, % 29,8 eta % 27,6, hurrenez hurren, sortu dira.

1.TAULA
TABLA 1

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-ENPRESAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN-EMPRESAS

INTERNETEN DAUDEN ESTABLEZIMENDUAK, ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA, LURRALDEA, JARDUERA-SEKTOREA ETA EMPLEGU-GERUZA KONTUTAN IZANIK, 2004. (%)

ESTABLECIMIENTOS CON PRESENCIA EN INTERNET POR IDIOMA EMPLEADO, SEGÚN TERRITORIO HISTÓRICO, SECTOR DE ACTIVIDAD Y ESTRATO DE EMPLEO EN 2004 (%)

	Euskara Euskera	Gaztelania Castellano	Ingelesa Inglés	Bestelakoak Otros
Lurralde-eremuak / Ambitos Territoriales				
Euskal AE / C.A. de Euskadi	32,4	98,1	30,6	13,8
Araba / Álava	29,8	99,7	36,5	12,0
Bizkaia	27,6	98,0	31,6	12,9
Gipuzkoa	39,9	97,6	27,1	15,5
Jarduera-adarra / Rama de actividad				
Industria	18,0	96,6	48,7	22,8
Eraikuntza / Construcción	26,5	100,0	26,1	7,9
Zerbitzuak / Servicios	34,9	98,1	28,4	12,9
Enplegu-geruza / Estrato de empleo				
0etik 2ra / De 0 a 2	30,9	97,2	24,7	8,9
3tik 9ra / De 3 a 9	30,2	98,8	29,6	14,9
10etik 19ra / De 10 a 19	30,5	99,0	31,4	15,2
20tik 49ra / De 20 a 49	44,9	97,4	41,3	19,9
50tik 99ra / De 50 a 99	43,6	99,2	55,0	24,5
100 eta gehiagoak / De 100 y más	41,1	96,4	62,9	27,3

Por sectores económicos, se puede reseñar cómo la industria con un 48,7% es la que más ha incorporado el inglés a sus páginas web y la que menos, con un 18,0%, utiliza el euskera. En el sector servicios, por el contrario, al 34,9% de páginas web se puede acceder en euskera y al 28,4% en inglés. Por su parte, el sector construcción, aunque tiene menos establecimientos con página web (7,2%), de ellos, el 26,5% utiliza el euskera y el 26,1% emplea el inglés. También cabe resaltar, como otra nota característica, que conforme aumenta el tamaño de los establecimientos crece el abanico de idiomas ofertados en la red y el idioma inglés, en concreto, se va generalizando, hasta alcanzar el 62,9% de los establecimientos de 100 o más empleados.

Ekonomia-sektoreen arloan, industriari erabili du gehien ingeleza webguneetan, % 48,7ko ehunekoarekin, eta euskara gutxien, % 18,0ko ehunekoarekin. Zerbitzuetako sektorean, aitzitik, webguneen % 34,9 irakur daitezke euskaraz, eta % 28,4 ingelesez. Bestalde, eraikuntzako sektorean, nahiz eta webgunea duten establezimenduak gutxiago diren (% 7,2), haietako % 26,5ek erabiltzen du euskara, eta % 26,1 ingeleza. Beste ezaugarri berezi bat nabarmendu behar da; alegia, establezimenduen tamaina handitu ahala, sarean erabiltzen diren hizkuntzen sorta ere handiagoa dela. Ingelesa, bereziki, gero eta orokorragoa da, eta 100 langileko edo gehiagoko establezimenduen % 62,9k erabiltzen dute.

Para finalizar con este capítulo, se pueden analizar las principales prestaciones y características que se encuentran en las páginas web de las empresas.

Si el disponer de un sitio web es importante para poder catalogar y medir la incorporación de las nuevas tecnologías, no es menos importante analizar qué prestaciones o funciones ofrecen las empresas que han decidido mostrarse en Internet por medio de una página propia. Así, estas posibilidades u opciones ofertadas van desde las funciones exclusivamente informativas y de carácter general sobre la empresa, hasta las que permiten realizar las ventas y los pagos de las transacciones efectuadas.

Las empresas pueden desarrollar, a través de sus páginas web, múltiples actividades relacionadas con publicidad, marketing, compra y venta de bienes y servicios, etc. En definitiva, pueden realizar una serie de tareas, propiciadas por este nuevo canal, que podrían revolucionar la actividad comercial y empresarial.


Establecimientos con presencia en Internet por prestaciones ofertadas en 2004. (%)

Atal honekin amaitzeko, enpresen webguneen prestazio eta ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu.

Webgune bat izatea garrantzitsua da teknologia berrien ezarpena sailkatu eta neurtzeko, baina, webgune propioen bitartez Interneten azaltzea erabaki eta gero, enpresek eskaintzen dituzten zerbitzu edo funtzioak ez dira ahaztu behar. Eskaintzen dituzten aukerak, bada, informazio hutsekoak eta enpresari buruzkoak izan daitezke, edo, bestalde, salmentak eta salerosketen ordainketak egitea ahalbidetzen dutenak.

Enpresek, webguneen bidez, publizitateari, marketinari, ondasun eta zerbitzuen salerosketari... lotutako jardura ugari egin dezakete. Azken finean, bide berri horren bitartez, merkataritza eta enpresa-jardura goitik behera alda dezaketen lanak egin ditzakete.

12. Interneten dauden establezimenduak, eskaintako prestazioen arabera, 2004. (%)



Si se observa el tipo de prestaciones que ofrecen las empresas en sus páginas web, se puede comprobar qué grado de aceptación alcanzan las diferentes opciones. Así, la diferencia que hay en el uso de las prestaciones de carácter meramente informativo o de comunicación y las relacionadas más directamente con la actividad comercial de las empresas es más que apreciable.

Enpresek beren webguneetan eskaintzen dituzten prestazioak aztertuz gero, aukera bakoitza zenbateraino onartzen den ikus dezakegu. Hala, oso alde nabarmena dago, batetik, informazio edo komunikazio hutseko prestazioen erabileraren eta, bestetik, enpresen merkataritza-jarduerari modu zuzenagoan lotzen zaizkien prestazioen erabileraren artean.

Prácticamente en todas las páginas web, concretamente en el 98,4%, las empresas ofrecen información general sobre la propia empresa y, en la mayoría de los casos, en el 86,3%, se puede obtener una lista o un catálogo de los bienes y servicios de que disponen.

Sin embargo, las prestaciones con menor utilización, como se observa en la parte baja del gráfico, son las que están más relacionadas con la operativa comercial de las empresas, entre ellas: la distribución directa de los productos y servicios sólo se puede encontrar en el 5,0% de los casos y el seguimiento de los pedidos o el pago directo, "on line", de los mismos, lo ofertan escasamente el 8,6% y el 8,8% de las páginas respectivamente.

En una situación intermedia se encuentran otras posibilidades, como la declaración de privacidad de la información, que figura en el 29,0% de las páginas disponibles, las transacciones protegidas que alcanza al 24,2% o los servicios post-venta, opción recogida en el 18,8% de las páginas. Además, información sobre ofertas de empleo, se pueden encontrar en el 18,0% de las páginas.

Por último, se observa cómo son las empresas del sector servicios las que utilizan, en mayor medida que en el resto de los sectores, las opciones que están más vinculadas a la actividad comercial y a su control. Esto puede ser debido en parte, al mayor nivel de desarrollo que han adquirido, en las actividades cotidianas, las empresas situadas en las ramas de banca y seguros o de transportes y comunicaciones, para poder operar a través de Internet.

6. Seguridad informática

Uno de los problemas más importantes con que se encuentran las empresas a la hora de acceder a la red es la proliferación de virus informáticos en Internet. Así, prácticamente a diario, aparece información referente a los últimos virus informáticos que circulan por la red y a las cuantiosas pérdidas económicas provocadas, tanto por el gran número de ordenadores infectados por estos virus, como por la paralización total o parcial de la actividad que ello puede acarrear, así como por la destrucción de archivos que contienen información que en ocasiones se produce.

Para evitar estos ataques, es de gran importancia para las empresas disponer de medidas adecuadas que protejan y salvaguarden sus equipos informáticos y consigan que no se vea alterado su funcionamiento diario.

Son varias las medidas que pueden adoptar las empresas para protegerse y, entre ellas, destaca en primer lugar, muy por encima de las demás, la utilización por casi la mitad del total de establecimientos (47,6%) de programas de detección de virus o antivirus. A continuación, aunque con una menor utilización, figuran otro tipo de precauciones, como son, estar suscrito a un servicio de seguridad (26,5%), realizar backups fuera del establecimiento (14,4%), tener firewalls o cortafuegos (13,7%) o utilizar servidores seguros (13,6%).

la webgune guztietan (% 98,4), enpresei buruzko informazio orokorra eskaintzen da, eta, kasu gehienetan (% 86,3), eskaintzen dituzten ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa lor daiteke.

Hala ere, gutxien erabiltzen diren prestazioak, grafikoaren behealdean ikus daitekeenez, enpresen merkataritza-eragiketei lotzen zaizkienak dira. Hona hemen: produktu eta zerbitzuen banaketa zuzena % 5,0ek baino ez dute, eta eskarien segimendua edo zuzeneko ordainketa on-line egitea webguneen % 8,6k edo % 8,8k baino ez dute eskaintzen, hurrenez hurren.

Beste aukera batzuk daude tarteko mailan, hala nola informazioaren pribatutasunaren aitortpena (webguneen % 29,0), salerosketa babestuenak (% 24,2), edo salmenta ondoko zerbitzuak (webguneen % 18,8). Horrez gain, webguneen % 18,0an lan-eskaintzei buruzko informazioa dago.


Azkenik, ageri da zerbitzuetako sektoreko enpresek gainerako sektoreetan baino gehiago erabiltzen dituztela merkataritza-jarduerari eta jarduera horren kontrolari loturiko aukerak. Hori neurri batean azaltzeko, kontuan izan behar dugu banka eta aseguru-etako edo garraio eta komunikazioko adarretan dauden enpresek garapen-maila handiago lortu dutela, eguneroko jarduerari dagokionez, Interneten jarduteko.

6. Informatika-segurtasuna

Enpresek sarean sartzean topatzen duten arazo nagusietakoa da Interneten birus informatiko ugariak egotea. Hartara, ia egunero, sarean dabilzan azken birus informatikoen berri ematen da. Halaber, birus horiek sortzen dituzten galera ekonomikoen berri ere ematen da, birusek ordenagailu-kopuru handia infektatzen dutelako, jarduera zati batean edo erabat geldiarazten dutelako, eta, zenbaitetan, informazioa duten artxibategiak deuseztatzen dituztelako.

Eraso horiei aurrea hartzeko, enpresentzat garrantzitsua da informatika-ekipoak babesten dituzten neurri egokiak izatea, enpresen eguneroko lana eten ez dadin lortzen dutenak, alegia.

Enpresek hainbat neurri har dezakete. Gainerako neurrien artean, eta oso gaineratik, birusen kontrako programak erabiltzea ageri da lehenik, establezimendu guztietatik, ia erdiak erabiltzen baititu (% 47,6). Ondoren, gutxiago erabiltzen diren beste neurri batzuk datoz, hala nola segurtasun-zerbitzu batean harpidetzea (% 26,5), segurtasun-kopiak egitea establezimendutik kanpo (% 14,4), suebakiak (firewall) izatea (% 13,7), edo zerbitzari seguruak erabiltzea (% 13,6).



En las empresas de un cierto tamaño, 10 ó más empleados, el uso de estas medidas se incrementa de forma considerable. Así, la mayoría de estos establecimientos, el 89,4%, utiliza programas de detección de virus y casi dos terceras partes, el 64,1%, están suscritos a un servicio de seguridad. También destaca la utilización de servidores seguros (47,5%), la instalación de firewalls o cortafuegos (42,6%) o la realización de backups fuera del establecimiento (41,5%).

También, es importante saber con qué periodicidad se actualizan estas medidas. Como es sabido, los virus informáticos que aparecen en la red se están renovando continuamente, circulando por Internet, cada vez con mayor frecuencia, nuevos virus o mutaciones de virus anteriores. Esto hace necesario que los sistemas de protección instalados por las empresas, para que sigan siendo efectivos, tengan que estar renovándose continuamente, por medio de actualizaciones preparadas por las compañías que prestan estos servicios.

Según los datos obtenidos en la encuesta ESI-empresas, un 33,0% de los establecimientos de la C.A. de Euskadi actualizaron sus protecciones en los tres meses anteriores a la toma de datos para este informe y un 42,2% lo hicieron en el último año. A partir de un cierto tamaño de empleo, 10 ó más empleados, estos porcentajes se elevan hasta alcanzar el 69,5%, los que han actualizado en los últimos tres meses, y el 84,2%, los que lo han hecho en el último año.

Tamaina batetik aurrerako enpreetan (10 langile edo gehiago), neurri horiek askoz gehiago erabiltzen dira. Horrela, establezimendu horietako gehienek (% 89,4) birusak hautemateko programak erabiltzen dituzte, eta ia bi herenek (% 64,1) izena emana dute segurtasun-zerbitzuren batean. Era berean, nabarmentzen dira zerbitzari seguruak erabiltzea (% 47,5), suebakiak instalatzea (% 42,6), eta establezimendutik kanpo segurtasun-kopiak egitea (% 41,5).

Orobat, garrantzitsua da jakitea noizetik noizera eguneratzen diren neurri horiek. Guztiok dakigunez, sarean azaltzen diren birus informatikoak etengabe berritzen dira. Beraz, Interneten gero eta maizago azaltzen dira birus berriak edo lehengo birusen aldaerak. Horren ondorioz, enpresek instalatzen dituzten babes-sistemak eraginkorrak izango badira, etengabe berritu behar dituzte, zerbitzu horiek ematen dituzten enpresek prestatuturiko eguneratzeen bitartez.

IGI: enpresak inkestan lortutako datuen arabera, Euskal AEko establezimenduen % 33,0k txosten honetarako datuak hartu baino lehenagoko hiru hilabeteetan eguneratu zituzten beren babesak, eta % 42,2k azken urtean eguneratu zituzten. Tamaina batetik aurrerako enpreetan (10 langile edo gehiago), ehuneko hori % 69,5koa izatera iritsi da sistemak azken hiru hilabeteetan eguneratu dituztenen artean, eta % 84,2koa azken urtean eguneratu dituztenetan.

Estos altos porcentajes en la utilización de medidas de seguridad, indican el cuidado que tienen las empresas en los sistemas de protección y por su actualización. Su preocupación, por cierto, está basada muchas veces en la experiencia propia. Así, el 12,0% del total de establecimientos declara haber tenido algún ataque de virus informático en el último año y el 1,3% ha sufrido accesos no autorizados a sus sistemas informáticos o a sus datos en ese mismo período. En los establecimientos de 10 ó más empleados, el porcentaje de las empresas que han sufrido alguno de estos ataques informáticos es superior, alcanzando el 28,5% y el 3,6% respectivamente.

7. Comercio electrónico

Para analizar esta variable hay que tener en cuenta que, en este estudio, la unidad encuestada es el establecimiento y no la empresa. Esto supone una dificultad añadida al análisis de la propia variable ya que, muy frecuentemente, el total de compras y de ventas electrónicas que realiza una determinada empresa, cuando ésta tiene varios establecimientos, lo centraliza en uno de ellos. Por tanto, la tabulación de datos dará unos resultados diferentes según cual sea la unidad elegida.

También hay que comentar que los datos obtenidos son relativos a 2003, a diferencia del resto de datos de este estudio, que están referenciados al comienzo del 2004.

El volumen de negocio generado en el año 2003 a través de la red o mediante otros sistemas electrónicos (EDI, Intercambio de datos electrónicos, etc.) ascendió a 3.702,5 millones de euros en cuanto a ventas electrónicas realizadas y a 1.794,7 millones en lo que hace referencia a compras efectuadas.

Segurtasun-neurrien erabileran dauden ehuneko handiek adierazten dute zenbaterainoko ardura duten enpresek babes-sistemez, bai eta haiek eguneratzeaz ere. Ardura hori norberaren esperientzian oinarritzen da, hala ere. Hartara, establezimendu guztien % 12,0k esan dute birus informatikoen erasoren bat pairatu dutela azken urtean, eta, denbora-tarte berean, % 1,3ren sistema informatikoetara edo datuetara baimenik gabe sartu dira inoiz. Hamar langile edo gehiago dituzten establezimenduetan, eraso informatikoak pairatu dituzten enpresen ehuneko handiagoa da (hurrenez hurren, % 28,5 eta % 3,6).

7. Merkataritza elektronikoa

Aldagai hau aztertzeko, kontuan izan behar dugu establezimenduaren arabera egin dela inkesta azterlan honetan, eta ez enpresaren arabera. Horren ondorioz, aldagaiaren azterketa zaildu egiten da, enpresek, askotan, establezimendu bakarrean zentralizatzen baitituzte erosketak eta salmenta elektronikoz, establezimendu bat baino gehiago dutenean. Aukeratzen dugun unitatearen arabera, beraz, emaitza batzuk edo beste batzuk emango ditu datuen tabulazioak.

Halaber, esan behar da datuak 2003koak direla, azterlan honetako gainerako datuak ez bezala, horiek 2004ko hasierakoak dira eta.

2003an sarearen edo bestelako sistema elektronikoen (EDI, datu-truke elektronikoa, etab.) bidez sortutako negozio-bolumena 3.702,5 milioi eurora iritsi zen salmentetan, eta 1.794,7 milioi eurora erosketetan.

2.TAULA
TABLA 2

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-ENPRESAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN-EMPRESAS

MERKATARITZA ELEKTRONIKO BIDEZ EGINDAKO EROSKETAK ETA SALMENTAK, LURRALDEAREN, JARDUERA-ADARRAREN ETA ENPLEGU-GERUZAREN ARABERA. (MILIOI EUROTAN ETA %TAN)

COMPRAS Y VENTAS POR COMERCIO ELECTRÓNICO SEGÚN EL TERRITORIO, LA RAMA DE ACTIVIDAD Y EL ESTRATO DE EMPLEO (EN MILLONES DE EUROS Y %)

	EROSKETAK COMPRAS			SALMENTAK VENTAS		
	2002	2003	%	2002	2003	%
Euskal AE / C.A. de Euskadi	1.509,5	1.794,7	18,9	2.833,7	3.702,5	30,7
Lurralde historikoa / Territorio Histórico						
Araba / Álava	345,8	373,8	8,1	1.587,2	1.722,0	8,5
Bizkaia	898,1	1.073,0	19,5	625,9	1.135,3	81,4
Gipuzkoa	265,7	347,8	30,9	620,5	845,2	36,2
Jarduera-adarra / Rama de actividad						
Industria	919,3	840,7	-8,5	1.890,8	2.379,4	25,8
Eraikuntza / Construcción	0,6	7,6	-	0,2	0,0	-
Zerbitzuak / Servicios	589,7	946,3	60,5	942,7	1.323,1	40,4
Enplegu-geruza / Estrato de empleo						
0etik 9ra / De 0 a 9	176,5	469,1	165,7	100,1	370,0	269,6
10 eta gehiagoak / De 10 y más	1.333,0	1.325,6	-0,6	2.733,6	3.332,5	21,9

Estas cifras representan, respecto al año anterior, unos incrementos del 30,7% en el caso de las ventas a través de comercio electrónico - desde los 2.833,7 millones alcanzados ese año - y del 18,9% en cuanto a las compras realizadas por este mismo sistema - desde los 1.509,5 millones que se obtuvieron en 2002 -.

Pormenorizando un poco más esta información, se observa como, por Territorio Histórico, es Alava en ventas y Bizkaia en compras las que destacan por su facturación. Si se analiza por ramas de actividad, en ventas sobresale industria respecto al resto de sectores, mientras que en compras tanto industria como servicios consiguen cifras similares, siendo irrelevante el sector construcción. Por último, y teniendo en cuenta el tamaño de los establecimientos, se aprecia como son los de 10 o más empleados los que obtienen las principales cifras económicas en el uso del comercio electrónico.

El desarrollo y la evolución de esta variable tiene una gran importancia en esta encuesta, ya que, uno de los grandes objetivos de Internet era y es conseguir que, por medio de la red, una cantidad de empresas considerable realice un alto número de transacciones comerciales, que esté acorde con la importancia que el uso de esta tecnología está adquiriendo en la sociedad.

Sin embargo, los establecimientos vascos siguen sin hacer gran uso del comercio electrónico. La proporción de los que efectúan compras o ventas a través de la red, o mediante otros sistemas electrónicos (EDI, Intercambio de datos electrónicos, etc), continúa siendo baja, lo que hace que la estimación estadística siga siendo insegura y los datos elevados de esta variable deban ser analizados con una cierta cautela.

Establecimientos que realizan comercio electrónico por estrato de empleo y año. (%)

14.


Zifra horien arabera, aurreko urtearen aldean %30,7 gehitu ziren merkataritza elektronikoa bidez egindako salmentak, aurreko urtean 2.833,7 milioira iritsi baitziren. Erosketak, berriz, %18,9 gehitu ziren, 2002an lortutako 1.509,5 milioietatik.

Informazio hori gehiago zehaztuta, argi ikusten da Araba izan zela salmentetan gehien fakturatu zuen lurraldea eta Bizkaia erosketetan gehien fakturatu zuena. Jarduera--adarraren arabera aztertuta, salmentetan industria nabarmendu zen gainerako sektoreen aldean; erosketetan, aldiz, industria eta zerbitzuak sektoreek antzerako zifrak lortu zituzten eta eraikuntzak ez zuen garrantzi handirik izan. Bukatzeko, establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 enplegatu edo gehiagokoek lortu zituzten emaitza nagusiak merkataritza elektronikoen erabileran.

Aldagai horren garapena eta bilakaera oso garrantzitsuak dira inkesta honetarako, Interneten erronka nagusietako bat baitzen -baita- enpresa-kopuru handi batek merkataritza-salerosteta ugari sarearen bidez egin dezan lortzea, teknologia horrek gizartean bereganatu duen garrantziarekin bat eginik.

Hala ere, Euskal AEko establezimenduek, oraindik ere, ez dute asko erabiltzen merkataritza elektronikoa. Sarearen edo beste-lako sistema elektronikoen (EDI, datu-truke elektronikoa, eta abar) bidez erosten edo saltzen dutenen proportzioak oraindik apalak direnez, zenbatespena ez da estatistikoki segurua, eta errore-marjina handia du.

Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak, enplegu-guzuzaren arabera, urteka. (%)



Aún así, se puede constatar un crecimiento del número de establecimientos que realizan comercio electrónico, al haber logrado alcanzar este año un porcentaje del 5,1% del total de establecimientos, desde el 4,4% observado el año anterior. Este incremento se debe principalmente al aumento de empresas que compran por vías electrónicas y que suponen ya el 4,3% de ellas, frente al 3,6% del año anterior. Sin embargo, las empresas que realizan ventas por las mismas vías se quedan prácticamente igual, pues ahora representan el 1,4%, cuando año anterior llegaron al 1,3%.

A esto, se puede añadir que las compras y ventas desarrolladas por Internet suponen, en promedio, el 17,4% y el 20,6% respectivamente del total de compras y ventas que han realizado los establecimientos con comercio electrónico.

Por último, hay que decir que se estima en unos 8.700 el número de establecimientos que realizan comercio electrónico en la C.A. de Euskadi.

En cuanto al tamaño de los establecimientos, también aquí va a incidir en el porcentaje de los que realizan comercio electrónico, alcanzando este año, los de 10 ó más empleados, porcentajes de utilización del 10,9%, lo que representa un escaso avance desde el 10,0% conseguido el año anterior. En actividades de compras, estos establecimientos representan el 8,7% y en actividades de ventas el 3,7%. Se debe añadir también que, en los establecimientos de este estrato de empleo y que realizan comercio electrónico, de sus compras o ventas totales, el 9,6% y el 15,5% respectivamente están realizadas a través de la red.

Más aún, si se observan los estratos de empleo más alejados entre sí, es decir, por un lado los establecimientos de mayor tamaño, con 100 ó más empleados, y por otro los que emplean a menos de 3 personas, los porcentajes que se obtienen de establecimientos que realizan comercio electrónico, varían desde el 17,2% del primer grupo hasta el 3,7% del segundo.

Por sectores de actividad, se observa cómo la industria y los servicios son las actividades que obtienen mayores porcentajes en el uso del comercio electrónico, con el 5,9% y el 5,4% respectivamente de los establecimientos totales, seguidos de construcción con un 2,7%.

Hala eta guztiz ere, merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen kopuruak gora egin du, aurtan % 5,1era iritsi baitira, eta aurreko urtean, ordea, % 4,4ra. Bide elektronikoak erabili erosten duten enpresak gehitzeak ekarri du igoera, % 4,3 baitira dagoeneko, aurreko urteko % 3,6aren aldean. Hala ere, bide berberak erabili saltzen duten enpresak ia ehuneko berdinetan gelditu dira: % 1,4 orain, eta % 1,3 aurreko urtean.

Horrez gain, Internet bidez egiten diren erosketak eta salmentak dira, batez beste, merkataritza elektronikoa erabili duten establezimenduetan egindako erosketak eta salmenta guztien % 17,4 eta % 20,6, hurrenez hurren.

Azkenik, Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak 8.700 direla zenbatu da.

Establezimenduen tamainari dagokionez, gai honetan ere garrantzia izango du ezaugarri horrek ehunekoetan. Hala, bada, 10 langileko edo gehiagoko establezimenduetan, merkataritza elektronikoren erabilera % 10,9 izan da aurtan. Gehikuntza txikia izan da, beraz, aurreko urtean % 10,0 izan zen eta. Erosketei dagokienez, establezimendu horiek % 8,7 dira, eta salmentak egiten dituztenak, % 3,7. Merkataritza elektronikoa egiten duten enplegu-geruza horretako establezimenduek erosketak edo salmenta guztien % 9,6 eta % 15,5, hurrenez hurren, sarearen bidez egiten dituzte.

Are gehiago, bata bestetik urrunen dauden enplegu-geruzak kontuan hartuta, hots, establezimendu handienak (100 langile edo gehiago) eta txikiak (3 enplegatutako baino gutxiago) kontuan hartuta, merkataritza elektronikoa dihardutenen ehunekoetan alde handia ikusten dugu: % 17,2 eta % 3,7, hurrenez hurren.

Jarduera-sektoreei begiratuta, industriak eta zerbitzuek ehunekorik handienak dituzte merkataritza elektronikoren erabileran (hurrenez hurren, establezimendu guztien % 5,9 eta % 5,4), eta hurrengo sektorea eraikuntzarena da (% 2,7).


3 TAULA
TABLA 3
INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-ENPRESAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN-EMPRESAS

Merkataritza elektronikoa Comercio electrónico	Interneten bidezko erosketak Compras por Internet		Interneten bidezko salmentak Ventas por Internet			
	Guztira Total	≈ 10	Guztira Total	≈ 10		
ESTABLECIMIENTOS CON COMERCIO ELECTRÓNICO SEGÚN EL SECTOR DE ACTIVIDAD Y EL ESTRATO DE EMPLEO EN 2003. (%)						
Guztira / Total	5,1	10,9	4,3	8,7	1,4	3,7
Jarduera-adarra / Rama de actividad						
Industria	5,9	11,0	4,4	8,1	2,7	5,0
Eraikuntza / Construcción	2,7	8,1	2,7	8,1	0,0	0,0
Zerbitzuak / Servicios	5,4	11,3	4,6	9,1	1,5	3,7

Establecimientos de 10 ó más empleados con comercio electrónico por sectores de actividad en 2003. (%)

15.

Merkataritza elektronikoa erabili duten 10 enplegatuko eta gehiagoko establezimenduak, 2003. (%)



En cuanto a los establecimientos de 10 ó más empleados, el orden es similar aunque, ahora, las diferencias entre sectores son más reducidas, alcanzando unos porcentajes del 11,0% en industria, del 11,3% en servicios y, por último, del 8,1% en construcción.

En lo que se refiere a las compras, y siguiendo en este tamaño de empleo (10 ó más empleados), si se pormenoriza un poco más esta información se observa cómo, en industria, que de media consigue un 8,1% de establecimientos que participan de esta actividad, son los sectores "Material eléctrico" y "Papel, edición y gráficas", los que obtienen mayores porcentajes con un 22,0% y un 15,9% respectivamente. En servicios, que obtiene de media el 9,1% de establecimientos que compran por este sistema, son los sectores de "Servicios a empresas" y "Comercio y reparación", los que destacan con un 17,8% y un 11,1%. En construcción, por su parte, son el 8,1% de establecimientos los que compran electrónicamente.

Por el lado de las ventas, como ya se observaba anteriormente, el número de establecimientos que ofrece sus productos a través de la red es bastante más reducido. Así, solamente el 5,0%, en este tamaño (10 ó más empleados), oferta a través de esta vía en el sector industrial, mientras que en el sector servicios supone escasamente el 3,7%. En construcción, sin embargo, ningún establecimiento declara haber realizado ventas mediante este sistema. Desglosando un poco más estos sectores de actividad, se aprecia cómo los establecimientos de 10 ó más empleados englobados en "Industria química" y en "Material eléctrico", dentro del sector industrial, son los que más usan esta vía, alcanzando al 14,2% y al 13,0% de ellos. En servicios, por su parte, destaca "Banca y seguros" y "Hostelería" con un 16,0% y un 10,3% respectivamente como las actividades con mayor presencia de establecimientos a la hora de realizar ventas electrónicas.

También es importante comentar que, si bien las transacciones reales y el número de empresas que participan en el comercio electrónico está todavía muy por debajo de lo esperado, la importancia que tiene Internet en este campo es muy superior a lo que las cifras de intercambio nos puedan manifestar. Esto es debido a la importancia creciente de lo que se denomina "ventas inducidas" a través de la web y que, aunque aún no se consideran dentro de las estadísticas de comercio electrónico, se trata de ventas en las que las empresas, antes de adquirir de forma tradicional un producto, se informan a través de la red de las diferentes posibilidades que existen en el mercado, para conocer, tanto los diferentes precios a los que se ofertan, como las características que tiene cada uno de ellos y así, con todos los datos, poder elegir la mejor opción aunque se acabe comprando con el sistema de siempre.

Otro de los apartados de la encuesta ESI-empresas facilita información acerca del tipo de cliente al que se han destinado las ventas en el comercio electrónico.

Así, en el año 2003, el 44% del total de ventas electrónicas ha ido destinado a otras empresas (el comercio denominado B2B), el 54% ha tenido como destinatarios consumidores particulares (B2C) y el 2% restante se ha repartido entre otros destinos como Administraciones Públicas, etc (B2G). Comparando estas

Hamar langile edo gehiago dituzten establezimenduetan, antzeko hurrenkeran datoz sektoreak, baina haien arteko aldeak txikiagoak dira; hala, bada, industrian % 11,0k erabiltzen dute merkataritza elektronikoa, zerbitzuetan % 11,3k, eta eraikuntzan % 8,1ek.


Erosketei dagokienez, enpleguaren maila horretan (10 langile edo gehiago) informazioa era xehatuagoan aztertzen bada, industrian ikusten da (batez beste, establezimenduen % 8,1ek dihardute jarduera horretan) material elektrikoa eta papera, argitalpena eta arte grafikoak sektoreetan daudela ehunekorik handienak: hurrenez hurren, % 22,0 eta % 15,9. Zerbitzuetan (batez beste, establezimenduen % 9,1ek erosten dute sistema horren bidez), enpresentzako zerbitzuak eta merkataritza eta konponketa sektoreak nabarmentzen dira: % 17,8 eta % 11,1. Eraikuntzan, bestalde, establezimenduen % 8,1ek erosten dute bide elektronikoa erabiliz.

Salmentei dagokienez, lehendik ere ikusten den bezala, sarean beren produktuak eskaintzen dituzten establezimenduen kopurua nahiko txikiagoa da. Horrela, tamaina horretako industrian (10 langile edo gehiago) % 5,0ek eskaintzen dute zerbitzu hori, eta zerbitzuen sektorean, % 3,7k. Eraikuntzan, baina, establezimendu batek ere ez du adierazi salmentarik egin duenik sistema horren bidez. Jarduera-sektoreak pixka bat gehiago xehekatuta, industria-sektorearen baitan industria kimikoa eta material elektrikoa taldeetan dauden 10 langileko edo gehiagoko establezimenduek erabiltzen dute gehien bide hori (% 14,2k eta % 13,0k, hurrenez hurren). Zerbitzuen baitan, bestalde, banka eta aseguruak eta ostalaritza nabarmentzen dira salmenta elektronikoa gehien egin dituzten establezimenduetzat. Hurrenez hurren % 16,0ko eta % 10,3ko ehunekoak izan dituzte.

Merkataritza elektronikoa parte hartzen duten enpresen kopurua zein enpresen benetako salerosketak espero zenaren azpitik dauden arren, eremu honetan Internetek duen garrantzia zifra horiek adierazten dutena baino askoz ere handiagoa da. Hori webgunearen bidezko «salmenta indutitua» deritzonagatik gertatzen da: enpresek produktua betiko eran erosi aurretik, Interneten bidez informazioa jasotzen dute merkatuan diren aukeren inguruan, bai prezioei buruz bai produktuen ezaugarriei buruz, datu guztiak izanda aukerarik hobereena erosteko, betiko sisteman erosten badute ere. Horregatik, salmenta horiek ez dira merkataritza elektronikoko estatistiketan islatzen

Bestalde, IGI: enpresak inkestako beste atal batean, merkataritza elektronikoko salmentak zer bezero-motarentzat diren azaltzen da.

Datu horien arabera, 2003an, salmenta guztien % 44 beste enpresa batzuentzat izan dira (B2B deritzon merkataritza), % 54 kontsumitzaile partikularrentzat (B2C), eta gainerako % 2 beste batzuentzat izan da, hala nola administrazio publikoentzat eta abarrentzat (B2G). Datu horiek aurreko urtekoekin konparaturik,



cifras con el año anterior, se aprecia una ligera redistribución de las ventas a favor de los consumidores (B2C), ganando, este destino, 3 puntos porcentuales desde el 51% anterior. Sin embargo, las ventas destinadas a otras empresas (B2B), pierden esos 3 puntos porcentuales, desde el 47% del año anterior, quedándose el resto igual.

Por tanto, observando el gráfico adjunto, se aprecia, en este último año 2003, una distribución de las ventas electrónicas muy similar al obtenido el año anterior.

Otro dato interesante se obtiene al observar el comercio electrónico según su distribución geográfica.

La distribución de las ventas realizadas a través de la red según la localización de los clientes da como resultado que, más de la mitad, en concreto el 56% del total facturado, tiene como destino el mercado interior de la C.A. de Euskadi, un 36% iría al resto del Estado, otro 5% se enviaría a la UE y el 3% restante se habría solicitado desde el resto del mundo. Respecto al año anterior, esta distribución ha variado en los dos principales destinos, ganando ahora peso las ventas al País Vasco. Éstas aumentan 5 puntos porcentuales desde el 51% del año anterior, mientras las destinadas al resto del Estado pierden esos 5 puntos porcentuales, desde el 41% que habían logrado. El resto de destinos se mantienen con los mismos porcentajes. Por sectores, el comportamiento es muy dispar en la distribución de sus ventas. Mientras industria deja el 44% en el País Vasco y envía el 37% al resto del Estado, servicios vende el 59% en la Comunidad y destina el 36% al resto del Estado. Construcción, por su parte, como ya se veía, no realiza esta actividad.

salmenten banaketan kontsumitzaileek (B2C) apur bat irabazi dutela atzematen da, 3 ehuneko-puntu berenganatu baitituzte, aurreko urtean % 51 izan eta gero. Hala eta guztiz ere, beste enpresa batzuei eginiko salmentek (B2B) 3 ehuneko-puntu horiek galdu dituzte (aurreko urtean % 47 izan ziren), eta gainerako salmenta-motak berdin gelditu dira.

Hartara, grafikoari begiratu gero, 2003. urtean salmenta elektronikoek izan zuten banaketa eta aurreko urtean izan zuten banaketa oso antzekoa direla ikusten da.

Merkataritza elektronikoaren banaketa geografikoari begiratu badiogu, beste datu interesgarri batzuk atzemango ditugu.


Sarearen bidez egindako salmentak aztertzean, bezeroak non dauden kontuan hartzen badugu, erdia baino gehiago -zehazki, guztira fakturatutakoaren % 56- Euskal AEko barne-merkatuari dagokio; salmenten % 36 Estatuko gainerako tokietara egin dira; beste % 5 Europar Batasunera; eta gainerako % 3, munduko beste toki batzuetara. Aurreko urtearen aldean, salmenten banaketa aldatu egin da, eta Euskal AEn barrukoek garrantzia handiagoa dute. Hain zuzen, 5 ehuneko-puntutan gehitu ziren, aurreko urtearen aldean (% 51). Gainera, Estatuko gainerako tokietara egindako salmentak 5 ehuneko-puntu horietan galdu dituzte (aurreko urtean % 42 izan ziren). Salmenten gainerako helmugek ehuneko berak izan dituzte. Sektoreka, salmenten banaketari dagokionez oso joera ezberdinak izan dira. Horrela, industria-sektoreko salmenten % 44 Euskal AEn geratzen dira, eta % 37 Estatuko gainerako tokietara bidaltzen dira. Zerbitzuen sektorean, % 59 Euskal AEn saltzen da, eta % 36 Estatuko gainerako tokietan. Eraikuntzan, eta espero bezala, ez da honelako jarduerarik egiten.

En cuanto a las compras, las empresas declaran ahora como primer origen, con el 51% del total de compras electrónicas, al resto del Estado. A continuación, con el 32% a la propia Comunidad y el resto vendría, desde la UE el 10% y desde el resto del Mundo el 7%. Respecto al año anterior, esta distribución ha variado también, básicamente, en los dos principales destinos. Las compras en la propia Comunidad han ganado 10 puntos porcentuales, desde el 22% anterior, y las compras al resto del Estado ha disminuido 9 puntos, desde el 60% obtenido un año antes. Además, UE sube 2 puntos y resto del Mundo baja 3 puntos desde el 8% y el 10% respectivamente. Por sectores, la distribución tendría mayor similitud en este caso. Así, del total de compras realizadas por Internet, la mayoría, el 45% en el caso de industria, el 50% en servicios y el 68% en construcción, proceden del resto del Estado. En el País Vasco, por su parte, se habrían realizado el 24%, el 33% y el 32% de las compras según el orden anterior.

Erosketei dagokienez, enpresek adierazten dute erosketa elektronikoen jatorri nagusia Estatuko gainerako tokiak direla. Hurren, Euskal AEn bertan egiten dituzte erosketa elektronikoen % 32, eta gainerakoak Europar Batasunean (% 10) eta munduko gainerako tokietan (% 7) egiten dituzte. Aurreko urteko banaketaren aldean, aldaketak daude honetan ere, bi jatorri nagusiei dagokienez, batik bat. Euskal AEn bertan egindako erosketak 10 ehuneko-puntutan gehitu dira (% 22 aurreko urtean), eta Estatuko gainerako tokietan egindakoak 9 puntutan murriztu dira (aurreko urtean, % 60). Horrez gain, Europar Batasunean egindako erosketak 2 puntu igo dira, eta munduko gainerako tokietan egindakoak 3 puntu galdu dituzte (aurreko urtean, hurrenez hurren, % 8 eta % 10 zegozkien). Sektoreka, banaketak antz handiagoa du. Interneten bidez egindako erosketa gehienak Estatuko gainerako tokietatik datoz: hain zuzen ere, industriaren sektoreko erosketen % 45, zerbitzuetako erosketen % 50 eta eraikuntzako erosketen % 68. Euskal AEn, aurreko hurrenkera berari jarraikiz, erosketen % 24, % 33 eta % 32 egin dira .

Compras y ventas electrónicas por destino u origen geográfico en 2003. (%)

17. Erosketa eta salmenta elektronikoa, helmuga edo jatorri geografikoaren arabera, 2003. (%)



8. Obstáculos al comercio electrónico

Varias pueden ser las causas por las que, a fecha de hoy, las cifras obtenidas en el comercio electrónico, tanto de empresas participantes en el mismo como de número y volumen de transacciones efectuadas, están todavía lejos de las cifras de negocio previstas por la mayoría de los expertos, no habiendo cumplido las expectativas que se habían generado.

Las empresas consultadas consideran que hay varios obstáculos para el pleno desarrollo del comercio electrónico y entre ellos destacan:

8. Merkataritza elektronikoa eraberritzeak

Egun, merkataritza elektronikoa lortu diren zifrak -parte hartzen duten enpresen kopuruari zein salerosketen bolumenari dagokienez- urrun dira, oraindik ere, adituek aurreikusi zituzten negozio-zifretatik, hau da, ez da espero zena bete. Horretarako, arrazoi bat baino gehiago egon daiteke.

Galdetu zaien enpresen ustez, hainbat oztopo dago merkataritza elektronikoa erabat garatzeko. Oztopoen artean, honako hauek nabarmentzen dituzte:

En primer lugar, casi dos de cada tres empresas (63,6%) opinan que la principal causa para no participar en este comercio es que sus productos y servicios no son adecuados para este tipo de transacciones.

A continuación, con cifras muy similares de opinión, aparecen como obstáculos más importantes para su desarrollo, el problema de seguridad que sigue existiendo respecto a los pagos (34,5%), la incertidumbre que hay respecto a las leyes que rigen este mercado, los plazos de entrega existentes y las garantías que ofrecen ante cualquier problema que pudiera surgir (33,7%) y, también, un 33,0% piensa que sus clientes no están preparados suficientemente.

Por último, otro obstáculo a tener en cuenta para el 28,6% de las empresas, es que todavía existen una serie de problemas logísticos que, mientras no se resuelvan, harán muy difícil que este tipo de comercio adquiera unas dimensiones considerables tanto en el número de transacciones realizadas como en el número de empresas que participan en él.

9. Comparación con otros países

Una vez terminado este informe, los datos disponibles para los países de la UE se refieren al año 2002, mientras que en el caso de la C.A. de Euskadi y de España, además de para esa fecha, se dispone de datos posteriores, 2003 en el caso España y comienzos de 2004 para la C.A. de Euskadi.

Lehenik, ia hiru enpresatik bik (% 63,6) merkataritza horretan ez parte hartzeko ematen duten arrazoi nagusia da beren produktuak eta zerbitzuak ez direla egokiak salerosketa-mota horretarako.

Hurren, honako oztopo hauek ageri dira merkataritza horren garapenean, oso antzeko ehunekoekin: ordainketetan oraindik ere den segurtasun-arazoa (% 34,5); zalantzazko egoera merkatu hori arautzen duten legeen inguruan, produktua emateko epeen inguruan eta, arazorik sortzen bada, dauden bermeen inguruan (% 33,7); eta, halaber, % 33,0k uste dute beren bezeroek ez daudela nahiko prestatuak.


Azkenik, enpresen % 28,6k kontuan hartzen duten beste oztopo bat da logistikako arazoak daudela oraindik ere. Arazo horiek konpontzen ez diren bitartean, zaila izango da merkataritza-mota honek neurri garrantzitsuak lortzea, bai egindako salerosketa-kopuruari dagokionez, bai parte hartzen duten enpresa-kopuruari dagokionez.

9. Beste herrialde batzuekiko aldeak

Txosten hau bukatu ondoren, Europar Batasuneko herrialdeei buruz eskura daitezkeen datuak 2002koak dira. Euskal AERen eta Espainiaren kasuan, ostera, urte horretako zein geroagoko datuak daude (2003koak Espainiarako, eta 2004ko hasierakoak Euskal AERako).

Establecimientos de 10 ó mas empleados que usan ordenadores por países en 2002-2004. (%) 18.

Ordenagailuak erabiltzen dituzten 10 langileko edo gehiagoko establezimenduak, herrialdeka, 2002-2004. (%)



E-commerce sailkapenaren araberako datuak (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako sektoreak D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)
 Datos según clasificación E-commerce (Sectores CNAE: D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)

Iturria/Fuente: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI): enpresak. EUSTAT / Encuesta sobre la Sociedad de la Información ESI-Empresas, EUSTAT
 ETICCE 2003 inkesta, INE / Encuesta ETICCE 2003 INE
 Statistics on the information society in Europe 2003, EUROSTAT

Por tanto, y para poder ubicar a las empresas vascas en un contexto internacional, en los siguientes gráficos se comparan los datos a la misma fecha, añadiendo además para el País Vasco y para España los últimos datos disponibles, a fin de observar la evolución experimentada.

También hay que comentar que los datos empleados en este apartado para la C.A. de Euskadi, son ligeramente diferentes a los que aparecen en el resto del informe. Esto es debido a que, en aras de una mejor comparabilidad, se ha empleado la sectorización E-commerce que utiliza Eurostat.

El empleo de ordenadores por parte de las empresas ha alcanzado tal nivel de utilización que ya forma parte del equipamiento básico de los establecimientos de este tamaño y, por tanto, superar esas cifras será muy complicado a partir de ahora en los países que están próximos a su umbral de utilización.

Hortaz, eta euskal enpresak nazioartean kokatu ahal izateko, honako grafiko hauetan data berean genituen datuak islatuko ditugu. Horrez gain, Euskal AERI eta Espainiari buruz lortutako azken datuak gehituko ditugu, izandako bilakaera ikusi ahal izateko.


Aipatu behar da atal honetan Euskal AERako erabili diren datuak eta txostenaren gainerako ataletan erabilitakoak ez direla erabat berdinak. Horren arrazoia da Eurostaten baliatzen duen E-commerce sektorizazioa erabili dela, konparagarritasuna hobetze aldera.

Enpresek halako neurrian erabiltzen dituzte ordenagailuak, non oinarriko hornikuntza baita jada tamaina horretako establezimenduetan; hortaz, erabilera-atalasetik hurbil dauden herrialdeetan, ehuneko horiek gainditzea oso zaila izango da hemendik aurrera.

Establecimientos de 10 ó mas empleados con acceso a Internet por países en 2002-2004. (%)

19.

Interneteko sarbidea duten 10 langileko edo gehiagoko establezimenduak, herrialdeka, 2002-2004. (%)



E-commerce sailkapenaren araberako datuak (Jarduera Ekonomikoaren Sailkapen Nazionalako sektoreak D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)
 Datos según clasificación E-commerce (Sectores CNAE: D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)


Iturria/Fuente: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI): enpresak. EUSTAT / Encuesta sobre la Sociedad de la Información ESI-Empresas, EUSTAT
 ETICCE 2003 inkesta, INE / Encuesta ETICCE 2003 INE
 Statistics on the information society in Europe 2003, EUROSTAT

En cuanto a los porcentajes que se obtienen en el acceso a Internet, son los países nórdicos los que claramente se destacan del resto, estando por encima del 90%. La C.A. de Euskadi, por su parte, alcanza unas cotas de acceso muy importantes, habiéndose generalizado su uso entre las empresas de este tamaño, lo que la sitúa entre los primeros puestos de la UE en esta clasificación.

Interneteko konexioan lortu diren ehunekoei dagokienez, Ipar Europako herrialdeak nabarmentzen dira guztien artean, % 90 gainditzen dute eta. Euskal AE, bestalde, Interneteko sarbideak oso maila altua lortu du, tamaina horretako enpresetan Interneten erabilera orokor bihurtu baita. Sailkapen horretan, beraz, Euskal AE Europar Batasuneko lehen postuetan dago.

Establecimientos de 10 ó mas empleados con página web por países en 2002-2004. (%)

20. Webgunea duten 10 langileko edo gehiagoko establezimenduak, herrialdeka, 2002-2004. (%)



E-commerce sailkapenaren araberako datuak (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako sektoreak D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)

Datos según clasificación E-commerce (Sectores CNAE: D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)

Iturria/Fuente: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI): enpresak. EUSTAT / Encuesta sobre la Sociedad de la Información ESI-Empresas, EUSTAT
ETICCE 2003 inkesta, INE / Encuesta ETICCE 2003 INE
Statistics on the information society in Europe 2003, EUROSTAT

Como se puede apreciar en este gráfico, en la C.A. de Euskadi, a pesar del alto porcentaje de empresas que tienen acceso a Internet, su presencia en la red mediante página web alcanza cotas bajas y, por tanto, al compararla con el resto de países de la UE se queda en los últimos puestos de la tabla.


Grafikoan ikus daitekeenez, Euskal AEn, nahiz eta Internetera konektaturiko enpresen ehuneko oso handia den, webgunearen bidez sarean daudenak gutxi dira. Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin erkatzean, beraz, azken postuetan gelditzen da.

En cuanto a la comparación con España de los principales equipamientos TIC, los porcentajes obtenidos son muy similares para los equipamientos básicos y es en el apartado de redes donde estos porcentajes son superiores en la C. A. de Euskadi, como se puede apreciar en el siguiente gráfico adjunto.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako hornikuntza nagusiak Espainiakoeekin konparatzean, oinarritzko hornikuntzetan antzeko ehunekoak lortu direla ikusten da. Sareen atalean, baina, Euskal AEko ehunekoak handiagoak dira, hurrengo grafikoan ageri denez.

Establecimientos de 10 ó mas empleados por equipamientos TIC, Euskadi 2004 - España 2003. (%) **21.**

10 langileko edo gehiagoko establezimenduak, IKT hornikuntzen arabera, Euskadi 2004 - España 2003. (%)



E-commerce sailkapenaren araberako datuak (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako sektoreak D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)
Datos según clasificación E-commerce (Sectores CNAE: D, G, 55.1, 55.2, I, 67, K)

Iturria/Fuente: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI): enpresak. EUSTAT / Encuesta sobre la Sociedad de la Información ESI-Empresas, EUSTAT
ETICCE 2003 inkesta, INE / Encuesta ETICCE 2003 INE

10. Notas metodológicas. Cuestionarios

10.1 Ficha metodológica

Identificación

Denominación de la operación	Encuesta de la Sociedad de la Información ESI - Empresas
Código de la Operación	000124 (Plan Vasco de Estadística)
Organismo responsable	EUSTAT
Periodicidad	Anual
Clase de operación	Encuesta por muestreo
Metodología según el origen de los datos	Recogida directa de datos primarios por muestreo

La Encuesta sobre la Sociedad de la Información ESI - Empresas es una operación estadística de periodicidad anual que se realiza con recogida directa de datos primarios por muestreo.

Objetivos

El objetivo genérico de la ESI es proporcionar a los responsables políticos, agentes económicos y sociales, universidad, investigadores privados y ciudadanía en general, información periódica sobre la penetración de las nuevas tecnologías de la información y de la comunicación -TIC- en las empresas del País Vasco.

Este objetivo general se puede concretar en tres objetivos específicos:

1. El grado de utilización y su previsión de uso de las principales Tecnologías de la Información y de la Comunicación, incluyendo el acceso del personal laboral a las mismas, y las medidas de seguridad informática en los establecimientos.
2. El uso de Internet en los distintos establecimientos: sistemas de acceso a Internet, actividades desarrolladas a través de Internet, así como las características principales de los sitios web de las empresas: prestaciones que ofrece.
3. La importancia del comercio electrónico en la actividad económica: características y medios a través de los cuales se realizan las compras y ventas de comercio electrónico, tipología de los clientes y proveedores, origen geográfico de los mismos y factores considerados como obstáculos o estímulos al desarrollo del mismo.

Ambito

- Poblacional: Conjunto de establecimientos de cualquier tamaño y de cualquier sector de actividad que ejerza su actividad en el ámbito de la C.A. de Euskadi, salvo el sector primario, el servicio doméstico y los organismos extraterritoriales.

10. Metodologia-oharrak. Galdesortak

10.1 Metodologia-fitxa

Identifikazioa

Eragiketaren izena	Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI) - Enpresak -
Eragiketaren kodea	000124 (Euskal Estatistika Plana)
Erakunde arduraduna	EUSTAT
Maiztasuna	Urterokoa
Eragiketa-mota	Laginketa bidezko inkesta
Metodologia, datuen jatorriaren arabera	Oinarrizko datuak laginketa bidez zuzenean biltzen dira

Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI) - Enpresak urtero egiten den eragiketa estatistikoa da, eta oinarrizko datuak laginketa bidez bilduta gauzatzen da.

Helburuak

IGIren helburu orokorra da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek (IKT) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan izan duten sartzeko-mailari buruzko aldi behingo informazioa ematea arduradun politikoei, eragile ekonomiko eta sozialei, unibertsitateari, ikertzaile pribatuei eta herritarrei oro har.

Helburu orokor hori hiru helburu berezitan laburbiltzen da:

1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia nagusien erabilera-maila eta teknologia horien erabilera-aurreikuspena neurtzea, lan-pertsonalaren sarbidea eta establezimenduetako segurtasun-neurri informatikoak barne.
2. Interneten erabilera, establezimenduetan: Interneten sartzeko sistemak, gauzatzen diren jarduerak, enpresen web guneen ezaugarri nagusiak: eskaintzen dituen prestazioak
3. Merkataritza elektronikoak ekonomiaren jardueran duen garrantzia: Internet bidez egindako erosketak eta salmenten ezaugarriak, bezero eta hornitzaileen ezaugarriak, bezero eta hornitzaileen jatorri geografikoa eta merkataritzaren garapenean oztopotzat edo pizgarritzat hartzen diren faktoreak.

Eremua

- Biztanleria-eremua: Edozein tamainatako eta edozein jarduera-sektoretako establezimenduen multzoa, jarduera Euskal AERen eremuan gauzatzen duena, lehen sektorean, etxeko-zerbitzuan eta lurraldez kanpoko erakundeetan izan ezik.

- Geográfico: Contempla la C.A. de Euskadi y sus tres Territorios Históricos.
- Temporal: La recogida de información se realizó en el primer trimestre de 2004.

Diseño muestral

